

ARABAKO FORU ALDUNDIA

DIPUTACIÓN FORAL DE ÁLAVA

Administrazio Xedapenak

Diputatuen Kontseiluaren Erabakiak

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

7443

661/2009 ERABAKIA, urriaren 20ko Diputatuen Kontseiluarena. Honen bidez, behin betiko onartzen da Ondasun Higiezin gaineko Zergari lotutako hiri lurzorua mugaketa Kripango udalerrirako.

Irailaren 24ko 518/2009 Foru Aginduaren bidez, behin-behineko onarpena eman zitzaion Kripango udal mugarterako egin den ondasun higiezin gaineko zergari lotutako hiri lurzorua mugapenari.

Aipatutako arauaren xedapeneko 3. artikuluan, Kripango Udalarri haren berri emateko agindua eman zen. Agindu hori 2009ko irailaren 25ean bete zen eta data horretan bertan jaso zuen jakinarazpena.

Uztailaren 19ko 42/89 Foru Arauak, Ondasun Higiezin gaineko Zerga arautzen duenak, 11. artikuluan 4. paragrafoan udalari hamabost egun ematen dizkio egoki deritzona jakinaraz dezan.

2009ko urriaren 8an Kripango udalak idazki bat bidali zuen adieraziz ados zegoela Ondasun Higiezin gaineko Zergari lotutako hiri lurzorua mugaketarekin.

Ondorioz, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuaren proposamenez, Diputatuen Kontseiluak gaia gaur bertan egindako bilkuran aztertu eta gero, ondokoa

ERABAKI DUT

Lehena.- Ondasun Higiezin gaineko Zergari lotuta dagoen Kripango hiri lurzorua mugaketa onartzea. Mugatze hori irailaren 3ko 516/2009 Foru Aginduak baldintzekin onartutako hiri antolamendurako plan orokorraren arabera egin da.

Bigarrena.- Aurrekoa gorabehera, kontuan hartuko da Ondasun Higiezin gaineko Zergari buruzko 42/1989 Foru Arauak 2. artikuluan b) idatz-zatiaren 1., 2. eta 3. puntuetan xedatutakoa, herri guneeatik kanpo dauden hiri izaerako eraikuntzek hartutako lurzoruei dago-kienez.

Hirugarrena.- Honako erabaki hau ALHAOn argitaratzea, bai eta lurralde historikoko egunkari salduenetan ere. Gainera, hamabost egunez jarriko da jendaurrean, interesdun orok egoki deritzen erreklamazioak aurkeztu ahal izan ditza. Izan ere, Kripango udaletxeko bulegoetan jarriko da jendaurrean, halaxe xedatzen baitute Ondasun Higiezin gaineko Zerga arautzen duen uztailaren 19ko 42/89 Foru Arauak 11. artikuluko 5. paragrafoan eta beraz garatzen duen abenduaren 15eko Diputatuen Kontseiluko 1080/1992 Foru Dekretuak 7., 8. eta 9. artikuluetan.

Vitoria-Gasteiz, 2009ko urriaren 20a.- Diputatu nagusia, XABIER AGIRRE LÓPEZ.- Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua, JOSÉ LUIS CIMIANO RUIZ.- Ogasun zuzendaria, JOSU ZUBIAGA NIEVA.

Disposiciones Administrativas

Acuerdos del Consejo de Diputados

DEPARTAMENTO DE HACIENDA, FINANZAS Y PRESUPUESTOS

7443

ACUERDO 661/2009, del Consejo de Diputados de 20 de octubre, que aprueba definitivamente la Delimitación de suelo urbano sujeto al Impuesto sobre Bienes Inmuebles correspondiente al término municipal de Kripan.

Por Orden Foral nº 518/2009, de 24 de setiembre, se aprobó con carácter provisional la Delimitación de Suelo urbano sujeto al Impuesto sobre Bienes Inmuebles, realizada para el término municipal de Kripan.

En el artículo 3º de la parte dispositiva de la referida normativa legal, se ordenaba su comunicación al Ayuntamiento de Kripan, disposición que se realizó con fecha 25 de setiembre de 2009, siendo recepcionada por el Ayuntamiento de Kripan con la misma fecha.

La Norma Foral 42/89, de 19 de julio, reguladora del Impuesto sobre Bienes Inmuebles, dispone en su artículo 11 apartado 4º, el plazo de audiencia al Ayuntamiento respectivo, cifrándolo en quince días, para que informe lo que estime oportuno.

Con fecha 8 de octubre de 2009, el Ayuntamiento de Kripan remite un escrito en el que manifiesta su conformidad con la Delimitación de suelo urbano sujeto al Impuesto sobre Bienes Inmuebles realizada.

En su virtud, a propuesta del Diputado Foral titular del Departamento de Hacienda, Finanzas y Presupuestos, previa deliberación del Consejo de Diputados, en sesión celebrada por el mismo, en el día de hoy

ACUERDO

Primero.- Aprobar la Delimitación de Suelo urbano sujeto al Impuesto sobre Bienes Inmuebles, realizada para el término municipal de Kripan, de conformidad con el Plan General de Ordenación Urbana, aprobado, con condiciones, por Orden Foral nº 516/2009, de 3 de setiembre.

Segundo.- No obstante lo anterior, hay que tener en cuenta lo establecido por el artículo 2º apartado b) puntos 1, 2 y 3 de la Norma Foral 42/1989 del Impuesto sobre Bienes Inmuebles, para el tratamiento de los suelos ocupados por construcciones de naturaleza urbana, situados fuera de los núcleos de población.

Tercero.- El presente Acuerdo será publicado en el BOTHA y en los diarios de mayor circulación del Territorio Histórico. Además se procederá a su exposición pública por un plazo de 15 días para que los interesados formulen las reclamaciones oportunas. La exposición pública se llevará a cabo en las Oficinas del Ayuntamiento de Kripan, tal y como establecen el artículo 11 apartado 5º de la Norma Foral 42/89, de 19 de julio, reguladora del Impuesto sobre Bienes Inmuebles y su posterior desarrollo reglamentario Decreto Foral nº 1080/1992, del Consejo de Diputados de 15 de diciembre, en los artículos 7, 8 y 9.

Vitoria-Gasteiz, a 20 de octubre de 2009.- Diputado General, XABIER AGIRRE LÓPEZ.- Diputado Foral de Hacienda, Finanzas y Presupuestos, JOSÉ LUIS CIMIANO RUIZ.- Director de Hacienda, JOSU ZUBIAGA NIEVA.